

BALIO PROPOSAMENAK:

Kazen, erosketa orga, merkatuan egongo den azken berria da.

Noizbait gertatu al zaizue, supermerkatuan ordaintzeko orduan ilara desatseginak eta luzeak egitea?

Gure kazen, ilara ikaragarriak, produktuaren prezioa azkarrago jakitea eta deserosotasunari aurre egiteko diseinatuta dago. Hau da, azkartasuna, malgutasuna eta deserosotasuna eskaintzen dizue.

Erosketa orga hauek, edukiko duten diseinua guk egindakoa da, kolore gorrikoak izango dira, eskulekuan, tablet bat integratuta egongo da eta bere eginkizuna bete ahal izateko sentsoreak eta kamarak izango ditu.

Tablet honen eginkizuna, produktua/ak identifikatzea eta guztizko prezioa zein den aurkeztea da.

Hau da; karritoan zenbat produktu sartu ditugu, zein produktu dira, haien prezioa zein den eta prezio horien batura kalkulatzeko joango da erosketa amaitu arte. Erosketa amaitzean, prezioa guztira azalduko da.

Tablet hauek eginkizun hau egin ahal izateko supermerkatuetan, aplikazio bat izango dute eta hau Kazen karritoak erabiliko dituzten supermerkatuei programatuko zaie. Horrela, gure produktuak egindako eginkizunak jakinaraziko zaizkie supermerkatuei.

Gainera, ongi ez diren moldatzen pertsonentzako laguntza fisikoa egongo da botoi bat sakatuz gero. Laguntza fisikoarekin esan nahi duguna da, supermerkatuko pertsona bat prest egongo dela bezeroari laguntzeko.

Gure bezeroak, supermerkatuak izango dira. Bezero hauei hasieran esan dugun bezala, onura ekarriko diela suposatzen dugu, jakinda erosketa orga hauek erabiltzen badituzte, haien bezeroak hau da, erosketa egiten duten pertsonak, erosago sentituko dira eta azkartasunez erosiko dute. Beraz, haien bezero tasa gehiago haziko zen.

Gure produktuaren **logoa** hau da:

